

**JENDAURREALDIARI BURUZKO AZKEN
TXOSTENA.
FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA,
EUSKARAREN ERABILERA ARAUTZEN
DUENARENA NAFARROAKO
ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN, BEREN
ERAKUNDE PUBLIKOETAN ETA
MENPEKO DITUZTEN ZUZENBIDE
PUBLIKOKO ENTITATEETAN.**

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko 11/2012 Foru Legeak, bere 13. artikuluan, xedatzen duenez Administrazio Publikoak, bere eskumenen eremuan, oro har, eskuragarri jarri behar die herritarrei informazio argia, objektiboa, eguneratua, eta erraz eskuratzeko moduan, hots, informazio aktiboen zerrenda bat, gehienbat orokorra, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian dagoena:

Aipatu artikulua i) idatz-zatian aditzera ematen da argitaratu beharra dela unean-unean prestatzen ari diren arauak buruzko prozeduren zerrenda, argi adieraziz zein den haien xedea eta tramitazioaren egoera. Agindu hori betetzearren, proposatzen den foru dekretu honen zirriborroa honako webgunean argitaratu zen:

https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/normas?field_propuestas_titulo_value=&field_departamento_gn_tid_entityreference_filtr=1521&field_estado_proceso_normati_tid=All&=Aplicar

Foru dekretuaren proiektua jendaurrean jarri zen, herritarrek hasierako iradokizunak egin ziezazkioten 2017ko otsailaren 15etik martxoaren 7ra bitartean. Erabilitako alegazio mekanismoa euskarabidea@navarra.es, helbide elektronikora bideratu da, eta agerian utzi du interesatutako pertsonen nortasuna.

Jendaurrealdiaren prozesu hau Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak azaroaren 18ko 55/2016 Foru Aginduaren bidez hasitako parte-hartze prozesua osatzera heldu da.

Aipatu epe guztian –irekita herritarrek egoki iruditzen zaizkien iradokizunak aurkez ditzaten–, honako alegazioak jaso dira:

**INFORME FINAL DE INFORMACIÓN
PÚBLICA.
PROYECTO DE DECRETO FORAL POR EL
QUE SE REGULA EL USO DEL EUSKERA
EN LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS
DE NAVARRA, SUS ORGANISMOS
PÚBLICOS Y ENTIDADES DE DERECHO
PÚBLICO DEPENDIENTES.**

La Ley Foral 11/2012 de la Transparencia y del Gobierno Abierto, en su artículo 13 dispone que la Administración Pública, en el ámbito de sus competencias, debe poner, con carácter general, a disposición de la ciudadanía, de forma accesible, clara, objetiva y actualizada, un listado de información activa que, en su mayor parte, tiene carácter general y se puede encontrar en el Portal de Gobierno Abierto de Navarra.

En el apartado i) del citado artículo, se indica la obligación de publicar la relación de los procedimientos de elaboración normativa que estén en curso, indicando su objeto y estado de tramitación. En cumplimiento de dicho precepto, el inicio de la elaboración de este Decreto Foral que se propone se ha publicado en la siguiente página web:

https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/normas?field_propuestas_titulo_value=&field_departamento_gn_tid_entityreference_filtr=1521&field_estado_proceso_normati_tid=All&=Aplicar

El proyecto de Decreto Foral ha sido sometido a exposición pública con el fin de que la ciudadanía formulara sugerencias a dicho texto inicialmente en el período que va desde el 15 de febrero al 7 de marzo de 2017. El mecanismo de alegación utilizado ha sido el correo electrónico dirigido a euskarabidea@navarra.es, dejando constancia de la identidad de las personas interesadas.

Este proceso de exposición pública completa el proceso participativo de elaboración iniciado con la Orden Foral 55/2016, de 18 de noviembre, de la Consejera de Relaciones Ciudadanas e Institucionales.

Durante todo el plazo citado, abierto para que los ciudadanos puedan presentar las sugerencias que estimen oportunas, se han recibido las siguientes alegaciones:

MANKOMUNITATEA	BORTZIRIAK
<p>Ekarpena: Eremu euskaldunean hizkuntza erabilera arautzen dituen atalean orokorrean bi hizkuntzak erabiltzeko beharra ezartzen du. Eremu euskaldunean normalizatuak eta onartuak dauden urratsetan gibelera egitea ekarriko luke. Hortaz azaltzen dute dekretuak, eremu euskaldunerako, jarduketa guztiak ele biz izatea bermatu behar badu ere, euskaraz soilik izatea ahalbidetu behar duela, ukitutako aldeek edota toki entitateek hala erabakiz gero.</p> <p>Erantzuna: Onartzen da barne-erabilerari begira administrazioen arteko harremanetarako eta administratuekiko harremanetarako eskaintzen den aukera, denen arteko adostasuna dagoenean, hizkuntza ofizial batean idazteko aukera egotea.</p>	<p>Aportación: En el apartado que regula el uso de la lengua en la zona vascofona, en general establece la obligación de utilización de los dos idiomas. Eso supondría un retroceso en pasos que están normalizados y aceptados en la zona vascofona. Por ello, si bien el decreto debe garantizar que, para la zona vascofona, todas las actuaciones deban ser bilingüe, debe igualmente posibilitar que sean exclusivamente en euskera, de acordarlo así las partes afectadas y/o las entidades locales.</p> <p>Respuesta: Se acepta la opción que se ofrece de redacción en una única lengua oficial de cara al uso interno, para las relaciones entre administraciones y las relaciones con administrados y administradas, cuando exista acuerdo entre todas las partes.</p>

UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea)	UEMA (Mancomunidad de Municipios Euskaldunes)
<p>1. ekarpena: 3. artikuluan agertzen den “ahalbidetzea” hitzaren ordez “bermatzea” hitza jartzea.</p> <p>1. erantzuna: Ez da aintzat hartzen “ahalbidetzea” terminoa argia eta egokiagoa delako Dekretuaren xedeei begira, Euskararen Foru Legeak finkatu duen eremukako mailaketa kontuan hartu behar baita.</p>	<p>1ª aportación: Que en el artículo 3, en vez de la palabra “posibilitar” aparezca la palabra “garantizar”.</p> <p>1ª respuesta: No se toma en consideración al ser “posibilitar” un término claro y más adecuado a los objetivos del decreto, ya que debe tenerse en cuenta la gradación por zonas fijada por la la Ley Foral del Vascuence.</p>
<p>2. ekarpena: Zerbitzu nagusietako barne erabilerari buruzko 7.2. artikuluan eremu mistoaren aipamena gehitzea eskatzen dute.</p> <p>2. erantzuna: Ez da aintzat hartzen eremu mistoko unitate administratiboei barne-komunikazioak elebiz egin ahal izatea ahalbidetu behar delako baina ezin da agindu, Euskararen Foru Legeak “potestativo” izaera ematen diolako.</p>	<p>2ª aportación: Por lo que respecta al artículo 7.2, sobre el uso interno en los servicios generales, piden añadir una referencia a la zona mixta.</p> <p>2ª respuesta: No se toma en consideración, ya que hay que posibilitar que las comunicaciones de las unidades administrativas de la zona mixta puedan realizarse de forma bilingüe, pero no puede prescribirse al otorgarle la Ley Foral del Vascuence un carácter “potestativo”.</p> <p>Pregunta a Paula: ¿y si lo aprobáramos?</p>
<p>3. ekarpena: Zerbitzu nagusiek administratuek zerbitzu nagusiekin espedientea euskaraz hasi badute proiektuak dio eratorritako komunikazioak ele biz igorriko zaizkiola eta ekarpenean planteatzen dute euskaraz igortzea</p>	<p>3ª aportación: El proyecto dice que si los administrados/as han iniciado el expediente con los servicios centrales en euskera, se les enviarán las comunicaciones de él derivadas</p>

<p>(9.4. artikulua).</p> <p>3. erantzuna: Ez da aintzat hartzen zerbitzu nagusiek bi hizkuntzen erabilera bermatu behar dutelako eta horrela bermatua dute komunikazioak euskaraz jasoko dituztela</p>	<p>en ambos idiomas; en la aportación se plantea que se manden en euskera.</p> <p>3ª respuesta: No se toma en consideración porque los servicios centrales deben garantizar el uso en los dos idiomas y de esta forma garantizan la recepción de las comunicaciones en euskera.</p>
<p>4. ekarpena: 11.2. eta 11.3 ataletan “ele biz” hitzaren orde “gutxienez euskaraz” aipamena jasotzea proposatzen dute.</p> <p>4. erantzuna: Ez da aintzat hartzen bi hizkuntzak ofizialak direlako eta euskarri bereizietan egiteko aukera dagoelako.</p>	<p>4ª aportación: En los apartados 11.2. y 11.3, proponen que en vez de “de forma bilingüe” se recoja la fórmula “como mínimo en euskera”.</p> <p>4ª respuesta: No se toma en consideración porque ambas lenguas son oficiales y porque existe la posibilidad de hacerlo en soportes separados.</p>
<p>5. ekarpena: 13.2 atalean “ele biz” hitzaren orde “gutxienez euskaraz” aipamena jasotzea proposatzen dute.</p> <p>5. erantzuna: Ez da aintzat hartzen bi hizkuntzak ofizialak direlako eta euskarri bereizietan egiteko aukera dagoelako.</p>	<p>5ª aportación: En el apartado 13.2, proponen que en vez de “de forma bilingüe” se recoja la fórmula “como mínimo en euskera”.</p> <p>5ª respuesta: No se toma en consideración porque ambas lenguas son oficiales y porque existe la posibilidad de hacerlo en soportes separados.</p>
<p>6. ekarpena: 14.1 eta 14.2 ataletan “ele biz” hitzaren orde “gutxienez euskaraz” aipamena jasotzea proposatzen dute.</p> <p>6. erantzuna: Ez da aintzat hartzen bi hizkuntzak ofizialak direlako eta euskarri bereizietan egiteko aukera dagoelako.</p>	<p>6ª aportación: En los apartados 14.1. y 14.2, proponen que en vez de “de forma bilingüe” se recoja la fórmula “como mínimo en euskera”.</p> <p>6ª respuesta: No se toma en consideración porque ambas lenguas son oficiales y porque existe la posibilidad de hacerlo en soportes separados.</p>
<p>7. ekarpena: 24. artikuluan B1 maila kentzea eta C2 maila gehitzea proposatzen dute.</p> <p>7. erantzuna: Ez da aintzat hartzen artikulua zehaztutako kasuei begira idatzita dagoelako eta C2 maila Nafarroan garatua ez dagoelako.</p>	<p>7ª aportación: En el artículo 24, proponen que en vez del nivel B1 aparezca el nivel C2.</p> <p>7ª respuesta: No se toma en consideración porque está redactado de cara a los casos detallados por el artículo y porque el nivel C2 no está desarrollado en Navarra.</p>
<p>8. ekarpena: 26. Artikuluan aldaketa hau proposatzen dute: elebiko lanpostutzat hartutakoa euskaraz ez dakien langileak euskarazko prestakuntza jardueretan parte hartu behar duela.</p>	<p>8ª aportación: En el artículo 26, proponen esta modificación: que el/la trabajador/a que desconozca el euskera que ocupe un puesto de trabajo considerado como bilingüe deba tomar parte en actividades formativas en euskera.</p>

<p>8. erantzuna: Ez da aintzat hartzen langileen eskubideak errespetatu behar direlako eta 6 artikuluan jasotzen den planifikazioak egoera horri erantzun egokia ematen diolako.</p>	<p>8ª respuesta: No se toma en consideración porque deben respetarse los derechos de los/as trabajadores/as y porque la planificación prevista en el artículo 6 da respuesta adecuada a dicha situación.</p>
<p>9. ekarpena: 27.2. artikuluan B1 mailaren ordez B2 jartzea proposatzen dute.</p> <p>9. erantzuna: Ez da aintzat hartzen B1 mailaren aipamena 24. artikuluan ondorioa delako.</p>	<p>9ª aportación: En el artículo 27.2, proponen que en vez del nivel B1 aparezca el nivel B2.</p> <p>9ª respuesta: No se toma en consideración porque la mención al nivel B1 es consecuencia del artículo 24.</p>
<p>10. ekarpena: 42.1. artikuluan C1 mailaren ordez C2ri baliorik handiena ematea proposatzen dute.</p> <p>10. erantzuna: Ez da aintzat hartzen C2 mailaren garapen akademikoa ez baitago egina.</p>	<p>10ª aportación: En el artículo 42.1, proponen dar el máximo valor al nivel C2 en vez de al nivel C1.</p> <p>10ª respuesta: No se toma en consideración porque no está hecho el desarrollo académico del nivel C2.</p>
<p>11. ekarpena Lehen xedapen gehigarriko 2. Atala: Bereziki errotulazioari dagokionez atal honek planteatzen du testuek bi hizkuntzetan tamaia eta ikusgarritasun behar izanen dutela. UEMAk, aldiz, proposatzen du euskarazkoa lehenestea tamaina eta ikusgarritasunari dagokionez.</p> <p>11. erantzuna: Ez da aintzat hartzen Nafarroako berezko bi hizkuntzei ikusgarritasun berbera ziurtatu behar zaielako</p>	<p>11ª aportación: 2º apartado de la Primera disposición adicional. Este apartado plantea que los textos, especialmente en lo referido a la rotulación, tengan en las dos lenguas el mismo tamaño y la misma visibilidad. UEMA, en cambio, propone dar prioridad al de euskera en lo que respecta a tamaño y visibilidad.</p> <p>11ª respuesta: No se toma en consideración porque hay que asegurar a las dos lenguas la misma visibilidad.</p>

ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEA	GRUPO ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ
<p>1. ekarpena: Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretua aldatu behar dela planteatzen dute eta aurkeztu duten proposamena dokumentu horretan egin beharko liritekeen aldakei buruzko da.</p> <p>1. erantzuna: Ez da aintzat hartzen. Elkarte honek aurkeztu du proiektu bat 29/2003 Foru Dekretua ordeztzeko, beraz dokumentuan ez dute ekarpenik planteatzen parte-hartze atarian jarri den Foru Dekretuaren proiektuari buruz.</p>	<p>1ª aportación: Plantean que hay que modificar el Decreto Foral 29/2003, de 10 de febrero, que regula el uso del euskera en las Administraciones Públicas de Navarra; la propuesta que presentan se refiere a las modificaciones que habría que hacer en dicho documento.</p> <p>1ª respuesta: No se toma en consideración. Esta asociación ha presentado un proyecto para sustituir al Decreto Foral 29/2003; por tanto, no plantean ninguna aportación con respecto al proyecto de decreto foral expuesto en el portal de participación.</p>
<p>2. ekarpena: Dekretuaren proiektuari buruz egin duten balorazio idazkia da, non haien ikuspegitik dauden gabeziak azpimarratzen</p>	<p>2ª aportación: Se trata de un escrito de valoración con respecto al proyecto de decreto, en el que subrayan las carencias que,</p>

<p>dituzten, baina ez dago ekarpen formulatua.</p> <p>2. erantzuna: Ez da aintzat hartzen balorazioan ez direlako ordeztu edo zuzendu beharko liratekeen pasarteen aipamenak egiten.</p>	<p>desde su punta de vista, existen en el mismo, pero sin formular aportación alguna.</p> <p>2ª respuesta: No se toma en consideración porque en la valoración no se hace mención alguna a los apartados que deberían ser objeto de sustitución o corrección.</p>
<p>3. ekarpena: 25. artikuluan ele biko lanpostuen ezaugarriak aipatzen dira eta proposatzen dute ele biko lanpostua izateko aukeren artean atal hau sartzea: “euskera lan hizkuntza moduan erabiltzea.</p> <p>3. erantzuna: Ez da aintzat hartzen 25. artikuluan aipatzen diren aukerekin egoki erantzuten zaiolako Foru Dekretuaren proiektuan.</p>	<p>3ª aportación: En el artículo 25 se mencionan las características de los puestos de trabajo bilingües y proponen que entre los motivos para que un puesto de trabajo sea bilingüe figure: “la utilización del euskera como lengua de trabajo”.</p> <p>3ª respuesta: No se toma en consideración porque con los motivos que se mencionan en el artículo 25 se le da respuesta de forma correcta en el proyecto de decreto foral.</p>

NAFARROAKO TOKI ENTITATEETAKO EUSKARA TEKNIKARIEN SAREA.	RED DE TÉCNICOS/AS DE EUSKERA DE LAS ENTIDADES LOCALES DE NAVARRA
I. TITULUA	TITULO I.
<p>1. ekarpena: 2. artikulua. Ele biko zirkuituen definizioa</p> <p>Erantzuteko proposamena: Aintzat hartu da eta zirkuito elebidunaren definizioa egin da.</p>	<p>1ª aportación: Artículo 2. Definición de los circuitos bilingües</p> <p>Propuesta de respuesta: Se toma en consideración y se hace la definición de los circuitos bilingües.</p>
<p>2. ekarpena: 3.a eta b artikulua. “...euskararen eta gaztelaniaren erabilera <i>ahalbidetzea</i>” hitza kendu eta horren ordeztu hau idaztea: “...euskara eta gaztelania erabiltzea” edo “...euskararen eta gaztelaniaren erabilera <i>bermatzea</i>”.</p> <p>Erantzuteko proposamena: ez da onartzen testuan agertzen den formulazioak arauak duen xedea ongi biltzen duelako.</p>	<p>2ª aportación: Artículo 3.a y b. Sustituir “...posibilitar el empleo del euskera y del castellano” por: “...el empleo del euskera y del castellano” o “...garantizar el empleo del euskera y del castellano”.</p> <p>Propuesta de respuesta: no se admite porque la formulación que aparece en el texto recoge correctamente el objetivo de la norma.</p>
<p>3. ekarpena: 3.b artikulua. Zerbitzu nagusiak gehitzea, herritar guztiendako izaera orokorra baitute.</p> <p>Erantzuteko proposamena: ez da onartzen testuan agertzen den formulazioak arauak duen xedea ongi biltzen duelako. Hizkuntza</p>	<p>3ª aportación: Artículo 3.b. Añadir los servicios centrales, porque tienen carácter general para todos los ciudadanos y ciudadanas.</p> <p>Propuesta de respuesta: no se admite porque la formulación que aparece en el texto recoge correctamente el objetivo de la</p>

<p>ofizialen erabileraren aipamena eremu euskaldunari baizik ezin zaio lotu.</p>	<p>norma. La mención al uso de las lenguas oficiales sólo puede hacerse con referencia a la zona vascófona.</p>
<p>4. ekarpena: 4. artikulua. Euskararen Foru Legeak izan dituen aldaketak aipatu beharra.</p> <p>Erantzuteko proposamena: ez da beharrezkoa gertatutako aldaketa guztiak biltzen baitira espresuki aipatu beharrik gabe.</p>	<p>4ª aportación: Artículo 4. Se deben mencionar las modificaciones sufridas por la Ley Foral del Vascence.</p> <p>Propuesta de respuesta: no es necesario, porque se recojen todas las modificaciones realizadas sin necesidad de mención expresa.</p>
<p>5. ekarpena: 6.1 artikulua. Departamentuek plangintza egiteko izanen dituzten baliabideak zehaztu.</p> <p>Erantzuteko proposamena: Departamentu bakoitzak arauak ezartzen duena betetzeko antolamendua egingen du.</p>	<p>5ª aportación: Artículo 6.1 Concretar los medios con los que contarán los departamentos para la realización de la planificación.</p> <p>Propuesta de respuesta: Cada departamento llevará a cabo la ordenación para cumplir lo que establece la norma.</p>
<p>6. ekarpena: 6.1 artikulua. Toki entitateetarako eta gainerakoetarako ere epemuga jartzea.</p> <p>Erantzuteko proposamena: Ez da onartzen proiektuak toki entitateen autonomia aintzat hartu baitu proiektuaren betebeharrak betetzeko epeak finkatzerakoan.</p>	<p>6ª aportación: Artículo 6.1 Poner fechas límite para las entidades locales y demás.</p> <p>Propuesta de respuesta: No se admite, porque el proyecto toma en consideración la autonomía de las entidades locales en el momento de establecer los plazos para cumplir las obligaciones del proyecto.</p>
<p>7. ekarpena: 6.1 artikulua. Egoera soziolinguistikoaren azterketa egitea.</p> <p>Erantzuteko proposamena: Ez da onartzen. Diagnostikoa barne azterketa da Egoera soziolinguistikoaren azterketa inkesta eta mapa soziolinguistikoek ematen dute.</p>	<p>7ª aportación: Artículo 6.1 Realizar un estudio de la realidad sociolingüística.</p> <p>Propuesta de respuesta: No se admite. El diagnóstico es un estudio interno. El estudio de la situación sociolingüística lo dan la encuesta y el mapa sociolingüístico.</p>
<p>8. ekarpena: 6.1 artikulua. Planaren diseinua nori dagokion ezartzea.</p> <p>Erantzuteko proposamena: ez da onartzen ez baita beharrezkoa ikusten. Departamentu, toki entitate edo sektore publiko instituzionaleko entitate bakoitzak antolatuko du planaren diseinuaz arduratuko den unitatea.</p>	<p>8ª aportación: Artículo 6.1 Establecer a quién le corresponde el diseño del plan.</p> <p>Propuesta de respuesta: no se admite al no considerarse necesario. Cada departamento, entidad local o entidad del sector público institucional organizará la unidad que se ocupará del diseño del plan.</p>
<p>9. ekarpena: 6.1 artikulua. Planaren jarraipena definitzea.</p> <p>Erantzuteko proposamena: onartzen da, egokia ikusi da planaren jarraipena</p>	<p>9ª aportación: Artículo 6.1 Definir el seguimiento del plan</p> <p>Propuesta de respuesta: se acepta, se considera conveniente citar el seguimiento</p>

<p>aipatzea. Formulazioa honela egingen da: h) Ezarritako helburuen jarraipenerako bideak eta ebaluaziorako adierazleak.</p>	<p>del plan. La formulación se realizará de la siguiente forma: h) Modos de seguimiento e indicadores de evaluación de los objetivos establecidos.</p>
<p>10. ekarpena: <u>6.1 artikulua.</u> Eremu mistoko toki entitateak ere plana egitera behartzea. Erantzuteko proposamena: ez da onartzen. Aski lege euskarririk ez dago eremu mistoko toki entitateak behartzeko.</p>	<p>10ª aportación: Artículo 6.1 Obligar también a las entidades locales de la zona mixta a elaborar el plan. Propuesta de respuesta: no se admite. No hay soporte legal suficiente para obligar a las entidades locales de la zona mixta.</p>
<p>11. ekarpena: <u>6.3 artikulua.</u> "... beharrezkoak diren neurriak" formulazioaren orde zehatzago bat idaztea. Erantzuteko proposamena: ez da onartzen, Foru Administrazioako departamentuek, toki entitateek eta sektore publikoko entitateek beharrezko diren neurri horiek zehaztuko dituzte.</p>	<p>11ª aportación: Artículo 6.3 Redactar una formulación más concreta que "... las medidas necesarias". Propuesta de respuesta: no se admite, esas medidas necesarias las concretarán los departamentos de la administración foral, las entidades locales y las entidades del sector público.</p>
<p>12. ekarpena: <u>6.4 artikulua.</u> Eremu mistoko toki entitateek ere planak egin behar izatea. Erantzuteko proposamena: ez da onartzen. 10. ekarpenari emandako erantzunean azaldu bezala, aski lege euskarririk ez dago eremu mistoko toki entitateak behartzeko.</p>	<p>12ª aportación: Artículo 6.4 Que también las entidades locales de la zona mixta tengan que elaborar planes. Propuesta de respuesta: no se admite. Tal como se ha explicado en la respuesta dada a la 10ª aportación, no hay soporte legal suficiente para obligar a las entidades locales de la zona mixta.</p>
<p>13. ekarpena: <u>7.1 artikulua.</u> "... egin daitezke" formulazioaren orde "eginen dira". Erantzuteko proposamena: Ez da onartzen barne komunikazioak egiterako aintzat hartu behar baitira unitate administratibo hartzaileen kokapen geografikoa, hau da, zonifikazioa, eta euskara ofiziala ez den zonaldeetan ezin da derrigortu.</p>	<p>13ª aportación: Artículo 7.1 Sustituir la formulación "... se podrán realizar" por "se realizarán". Propuesta de respuesta: No se admite, porque para realizar las comunicaciones internas debe tomarse en cuenta la localización geográfica de las unidades administrativas receptoras, esto es, la zonificación, y no se puede obligar en las zonas donde el euskera no es oficial.</p>
<p>14. ekarpena: <u>8.2 artikulua.</u> "... idatz daitezke" formulazioaren orde "idatziko dira". Erantzuteko proposamena: ez da onartzen. Euskara ofiziala ez den eta erabilera sozialeko hizkuntza ez den lurraldeetan dauden administrazio publikoei komunikazioak euskaraz ere igortzea</p>	<p>14ª aportación: Artículo 8.2 Sustituir la formulación "... se podrán redactar" por "se redactarán". Propuesta de respuesta: no se admite. No hay soporte legal para obligar a que sean también en euskera las comunicaciones a las administraciones públicas situadas en territorios donde el euskera no es oficial ni</p>

<p>behartzeko lege euskarririk ez dago.</p>	<p>idioma de uso social.</p>
<p>15. ekarpena: <u>9.4 artikulua.</u> Interesatuek euskaraz hasitako espedienteek euskaraz erantzutea.</p> <p>Erantzuteko proposamena: testuak proposamena biltzen du, ele biz erantzuten bada erantzuna euskaraz ematen dela ulertzen da.</p>	<p>15ª aportación: Artículo 9.4 Responder en euskera a los expedientes iniciados en euskera por los interesados.</p> <p>Propuesta de respuesta: el texto recoge la propuesta, si se responde de forma bilingüe se entiende que la respuesta se da en euskera.</p>
<p>16. ekarpena: <u>9.5 artikulua.</u> "... beharrezko neurriak" formulazioa aldatu.</p> <p>Erantzuteko proposamena: ez da onartzen, administrazio publikoetako eta sektore publiko instituzionaleko entitateetako zerbitzu nagusiek beharrezko diren neurri horiek zehaztuko dituzte.</p>	<p>16ª aportación: Artículo 9.5 Cambiar la formulación "... las medidas necesarias".</p> <p>Propuesta de respuesta: no se admite, esas medidas necesarias las concretarán los servicios generales de las entidades del sector público institucional.</p>
<p>17. ekarpena: <u>10 artikulua.</u> Epeak zehaztu behar dira.</p> <p>Erantzuteko proposamena: Proiektuak epeak zehazten ditu. Lehen xedapen iragankorrean zehazten da 6. artikuluan aipatzen diren planek urtebeteko epean eginak behar dutela. Bigarren xedapen iragankorrean, zernahi komunikazio-elementuren egokitzapenez, honela dio: Nafarroako administrazio publikoek eta sektore publiko instituzionaleko entitateek pixkanaka eta modu jarraian egokituko dituzte irudi, jakinarazpen, ohar eta argitalpenen elementu guztiak, erabat bete arte, foru dekretu honetan aurreikusitako terminoetan. Horretarako, aurrekontuetan dirua gordeko da, aipatu elementuak mantendu, zaindu eta berritzeko.</p>	<p>17ª aportación: Artículo 10 Deben concretarse los plazos.</p> <p>Propuesta de respuesta: El proyecto concreta los plazos. En la disposición transitoria primera se detalla que los planes mencionados en el artículo 6 deben estar realizados en el plazo de un año. En la disposición transitoria segunda, dice lo siguiente en lo que se refiere a la adecuación de los diversos elementos comunicativos: La adecuación de todos los elementos de imagen, comunicaciones, avisos y publicaciones en los términos previstos en este decreto foral se realizará por las diferentes administraciones públicas de Navarra y las entidades del sector público institucional de forma progresiva y continua hasta su total cumplimiento, aplicando para ello las disponibilidades presupuestarias que se prevean con motivo del normal mantenimiento, conservación y reposición de dichos elementos.</p>
<p>18. ekarpena: <u>11.2 artikulua.</u> Eremu euskaldunean dagoen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan, izaera orokorreko barne-komunikazioak euskara hutsean egin ahal izatea.</p> <p>Erantzuteko proposamena: onartzen da hizkuntza ofizial bakar batean egiteko aukera ematea, baina</p>	<p>18ª aportación: Artículo 11.2 Poder realizar exclusivamente en euskera las comunicaciones internas de carácter general en la Administración de la Comunidad Foral de Navarra radicada en la zona vascofona.</p> <p>Propuesta de respuesta: se acepta dar opción a hacerlo en una sola lengua oficial, pero, tal como se</p>

<p>abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak, Euskarari buruzkoak 11. artikuluan aurreikusitako moduan, interesdun guztiek espresuki bakar bat erabiltzea aukeratzen badute; ez administrazioak hala erabakiz gero.</p>	<p>prevé en el artículo 11 de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vascuence, en el caso de que todos los interesados lo decidan de mutuo acuerdo, no si es la Administración la que lo decide.</p>
<p>18 bis. ekarpena: <u>11.3 artikulua.</u> Eremu euskaldunean dagoen toki administrazioetan barne-erabilera euskara hutsean egin ahal izatea.</p> <p>Erantzuteko proposamena: Ez da onartzen. Bi hizkuntzak ofizialak dira eta bien presentzia ziurtatu behar da, gainera proiektuak euskarri bereizietan egiteko aukera eskaintzen du.</p>	<p>Aportación 18 bis: Artículo 11.3 Poder realizar exclusivamente en euskera el uso interno en la administración local radicada en la zona vascofona.</p> <p>Propuesta de respuesta: No se admite. Ambos idiomas son oficiales y debe asegurarse la presencia de los doss; además, el proyecto ofrece la posibilidad de hacerlo en soportes separados.</p>
<p>19. ekarpena: <u>12.1 artikulua.</u> Administrazio publikoen arteko harremanak euskaraz soilik egin ahal izatea.</p> <p>Erantzuteko proposamena: Testuak duen formulazioan proposatutakoa biltzen dela ulertzen da.</p>	<p>19ª aportación: Artículo 12.1 Poder realizar exclusivamente en euskera las relaciones entre administraciones públicas.</p> <p>Propuesta de respuesta: Se entiende que lo propuesto queda recogido en la formulación que aparece en el texto.</p>
